

27. zenbakia / 2015eko abendua

Leizako
aldizkaria











Marmari


- Leizako aizkolariak eta herri-kirola
- Euskal Herria Mendi Erronka
- Euskara Zerbitzuak 25 urte
- Balikebale
- eta gehiago...

Enbor bereko ezpalak



zenbaki honetan:

	●	3. or. Aurkezpena
	●	4-7. or. Euskara Zerbitzuak 25 urte
	●	8-9. or. Onomatopeiak
	●	10-12. or. Euskal Herria mendi erronka
	●	13-16. or. Leitza Migel Angel Gereñoren begietan
	●	17. or. Hitzokei
	●	18-19. or. Kale edo Bale... Balikebale!
	●	20-21. or. 19. Korrika
	●	22-27. or. Herri-kirolaren sustraiak
	●	28. or. Eta zuk, zer diozu?



Enbor bereko ezpalak

Herriak kirolari ugari eta onak eman ditu. Argi erakusten du Basa Kabin ateratako argazki eder honek: 15 aizkolari, aizkorak bizkarrean hartuta, gustura beraien afizioa eta dohaina erakutsiz. Ezin da ukatu Leitzan presentzia nabarmena izan duela herri-kirolak aspalditik. Gaitasun handiko kirolariak eman ditu herriak, hasi aizkoran, eta ondoren harrijasotzen, segan, lasterka,...

Urte oparoak izan ditu herri-kirolak hemen, Txapelketa mordoska irabazitakoak dira herriko aizkolariak, munduko errekorrak eginak harrijasotzaileak eta hainbat apustu jokatu eta irabazitakoak lasterkariak. Baina deigarriena dena, akaso, enbor sendo honek ezpal

asko eman dituela, eta kirolari emana ez dela eten Leitzan, ondorengoak badi-relako gaur egun ere eta sendo ari direnak gainera. Kontu hauek erreparasaten saiatu gara MARMARIren ale honetan, guzti-guztia ekartzea ezinekkoa da baina hemen bildutakoa, herri-kirolak Leitzan duen garrantziaren erakusle da, modu batean.

Tarte zabala hartzen duen arren, aizkolariak eta bestelako kirolariak ez dira Marmariko 27. aleko gai bakarra, jakina. Euskal Herria Mendi Erronkari ere erreparatu diogu, indar handia hartzen ari den ekintza delako. Mendi Erronka prestatzen aritzen den lantaldeko 4 kideekin bildu gara mendi lasterketa honen ezau-garriak eta bestelako kontuak jasotzeko.

Aurtengoa urteurren garaia dela esan behar dugu, hainbat erakundek 25 urte bete dituela entzun dugulako azkenaldian. Gure eskualdeko Euskara Zerbitzuak ere mende laurdena egin du, lanean hasi zenetik. Beraz tarte bat eskaini nahi izan diogu gaiari.

Balikebale lehiaketak ere bigarren edizioa izanen duela eta begiratu bat eman diogu ikuskizunari, aurtengo lehiakideak zein izanen diren zerrendatuz, besteak beste.

Argazki eta irudi esanguratsuak ere bildu ditugu ale honetan. Batetik Migel Angel Gereñok ateratako argazki sorta bat izanen duzue ikusgai, eta bestetik, aurtengo Korrikako bilduma txiki bat. Ea gustuko dituzuen!

LEITZA-GOIZUETA-ARESO-ARANOKO Euskara Zerbitzuak 25 urte

Eskualdeko Euskara Zerbitzua 1990. urtean sortu zen, aurten 25 urte bete ditu beraz udalekoa den zerbitzu honek.

Hasieran egoitza Lekunberrin zuen eta eskualdeko udalek hitzarmen baten bidez elkarlanean aritzea erabaki zuten. Orduan hasi ziren gure eskualdeko udalak, era planifikatu batean eta elkarlanean, euskara normalizatzeko ahaleginean.

Hasierako urrats horretan eskualdeko euskara zerbitzuak 2 euskara teknikari izan zituen. Geroxeago, eta orain arte mantendu den irizpideari erantzunez, hirugarren teknikari bat hasi zen lanean.

Eskualdeak hartzen zuen eremu zabala eta errealitate lingustiko ezberdina ikusita Mankomunitatea eratzea erabaki zen eta hala sortu zen 1997an **Nafarroako Iparaldeko Euskara Mankomunitatea**. Guztira 13 udalerrri batu ziren mankomunitate honenpean. Euskara Zerbitzuaren esparru geografikoa 3 eskualdetan banatu zen, batzorde eta euskara teknikari banarekin:

1. Leitza, Goizueta, Areso eta Arano.
2. Lekunberri, Larrun, Araitz eta Bete-lu.
3. Basaburua, Ultzama, Imotz eta Odieta.

Gaur egun, esan bezala, banaketa horri eusten zaio.

ZEIN DA EUSKARA ZERBITZUAREN EGITEKOA

Euskara zerbitzuaren egitekoa zein den azalduko dugu 5 puntutan. Honakoak:

1. Udalen hizkuntza-politika eta normalizazio-planak diseinatu, gauzatu eta ebaluatzea. Euskara normalizatzeko eta sustatzeko mankomunitateak eginen



dituen ekimenak, jarduerak eta ekintzak jasoko dira plan horretan: aldizkariak, kanpainak, itzulpen-zerbitzua, kultur ekintzak, euskalgintzarekiko koordinazioa, trebakuntza, sentsibilizazioa, erabilera planak, dirulaguntzen kudeaketa...

2. Herritarrentzako zerbitzua: euskararen inguruan herritarrei laguntzea.
 - a) Denda, jatetxe, tailer, bulego, edo zerbitzuentzako itzulpen, zuzenketa eta aholkularitza zerbitzua.
 - b) Talde-elkarteentzako itzulpen, zuzenketa eta aholkularitza zerbitzua.
 - c) Bestelako zerbitzuak: euskararen inguruko informazioa, kontsultak, datuak..., edo euskararen inguruko edozein alderditan laguntza.


3. Beste talde edo pertsonen dinamikak lagundu, dinamizatu edo bultzatzea: herriotako kultur ekintzak, proiektuak, argitalpenak, ikastaroak...

4. Euskal Herri mailako kanpainak edo ekimenak herrira ekartzea, edo bertan laguntza behar dutenean ematea: UEMaren eguna, Bai Euskarari, Korrika, Nafarroa Oinez, Euskaraz Bizi Nahi Dut, Kontseiluaren kanpainak...

5. Euskararen egoeraren jarraipena:
 - a) Paisaia linguistikoa: errepedeko erroteruak, kartelak...
 - b) Lanpostutarako deialdiak
 - c) Administrazioaren zerbitzuen jarraipena (eskaerak): medikuak, bake epaitegia...
 - d) Bestelakoak: pestetako barrakak, kartelak,...

MANKOMUNITATEA ZERGATIK

Lehen ere esan dugu euskararen egoera eta erabilera indartu, normalizatu eta bizi-kortzeko borondate edo gogo indartsua dagoela gure eskualdean, baina hori ez dela berez, bere kasa gertatuko. Erdara



hizkuntza indartsuagoa da, bitarteko gehiago dauzka, eta beraz euskarari lagundu egin behar zaio, eta bere alde lan egin behar da. Beste era batzuk egon litezke akaso, baina gure eskualdean mankomunitate baten bitartez egitea hobetsi zen. Badira horretarako arrazoi batzuk:

- Hasteko, euskararen alde egin nahi den ahalegina ezin da inprobisatua, aldiari-aldikoa eta jarraipenik gabea izan. Udalek euskara sustatzeko egiten duten lana antolatu behar da, planifikatu, bermatu, egonkortu, jarraipena egin behar zaio... Tresna bat behar da horretarako, eta Mankomunitatea da hori.
- Euskararen normalizazioaren erronkari bakarrik eusteko ezintasuna. Udal batek

euskara normalizatzeko eta sustatzeko gauza asko egin ditzake, eta egin ere egiten dira: ordenantza onartu, hizkuntza paisaia euskaldundu... Egin beharreko beste batzuk, ordea, nekez egingen ditu udal batek bakarrik, are gehiago gureak bezalako herri txikietan: teknikariak kontratatzea, edo kanpaina edo ekimen konkretuak (katalogoa, familia programa, Etxepare, euskalduntze kanpaina, Bai Euskarari...) esate baterako.

- Udalen arteko koordinazioa: hizkuntza politika eta euskararen normalizazioa ez denez herri bakoitzaren erronka partikularra, eta elkarlana eta lankidetzatza onuragarria denez, udalen arteko koordinazio hori egonkor eta eraginkor bihurtuko duen egitura edukitzea komenigarria eta are beharrezkoa da.

- Zerbitzuak partekatzea: euskara Mankomunitateak euskara zerbitzu bat dauka, hiru teknikariz hornituta. Bistakoa da udal bakoitzak ezinenez liokeela horrelako zerbitzu bati bere aldetik eutsi, eta ezinbestekoa gertatzen da zerbitzu hori elkarrekin partekatzea, bestelako alor batzuetan egiten den bezalaxe.
- Gastuak partekatzea: euskararen normalizazioa ez da soilik auzi ekonomikoa, baina alderdi ekonomikoa ere badu. Udalek euskara normalizatzeko egiten duten lanak ahalegin ekonomikoa bat eskatzen du, eta urtero gastu batzuk eragiten dizkie udalei. Gastuak partekatzea, bistan denez, mesedegarria gertatzen zaie udalei.
- Herrien arteko harremanak: gure mankomunitatea osatzen duten udalak elka-



rren ondoan daude, eta herri horietako batzuek zerbitzuak partekatzen dituzte: eskola, institutua, dendak, osasun etxea, kiroldegia... Hizkuntza normalizazioaren eta hizkuntza plangintzaren aldetik,

askotan unitatea ez da udala bera, zenbait herriren batuketa edo eskualdea baizik. Hizkuntza planak, beraz, askotan eskualdearen ikuspegitik egin behar dira edo egitea komeni da.

EUSKARA ZERBITZUA ETA MANKOMUNITATEA (1990-2015)

Dokumentu honetan Leitza, Goizueta, Areso eta Aranoko Udaletako euskara zerbitzuak lau herri horietan egindako lanen bilduma bat jaso da. Landu eta gauzatu diren lan-ildoak eta ekimenak jaso ditugu, nahikoa modu orokorrean, normalean ekintzen aipamen xehe-xehean sartu gabe. Ez daude jasota, esate baterako, zerbitzuaren 25 urte inguruko ibilbidean antolatutako hitzaldi, ikastaro edo kultur ekintza guztiak, edo beste hainbat uanean uneko ekintza edo kanpaina.

Lan-ildoak eta ekimenak arloka antolatuta daude, eta arloen hurrenkerak ez dauka esanahi berezirik. Aipatutako lan-ildo edo ekimen bakoitzaren ondoan data agertuko da parentesi artean: egin zeneko data da, edo, zenbait kasutan, hasi eta bukatu zeneko denbora-tartea adierazten duena.

1990. urtekoa da zerbitzuaren lehendabiziko plana, eta orduz geroztikoak jaso ditugu hemen. Ikusiko den moduan, ekimen batzuk iraupen labur samarrekoak izan dira, eta beste batzuk urteetan zehar iraun dutenak. Zerrendatze honen helburua da egindako ibilbidearen ikuspegi orokor eta zabal bat eskaintzea, Euskara Mankomunitatearen norabidearen eta etorkizuneko lanen inguruko gogoetan laguntzeko.

Komunikazioa

- Karrape Irratiaren sorrera (1993)
- Tipi-Ttapako gehigarria (1994-2003)
- Euskara Zerbitzuaren saioak Karrape irratiari (1998-2015)
- Bertako telebista sortzeko azterketa (1998)
- Karrape Irratiari buruzko audientzia azterketa (1999)
- Marmari aldizkaria (2000-2015)
- Xapo aldizkaria (2002-2015)

- BERRIA sortzeko kanpaina (2003)
- Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza eskualdean hedatzeko kanpaina (2004)
- Miaxiria aldizkaria (2010-2015)
- Panpanoziri aldizkaria (2011-2015)
- Iparmank webgunea (2015)

Gazteak

- Marmari taldearen sorrera (1999)
- Marmari taldearen eta euskara zerbitzuaren egitasmoa (2000-2001)

Aisialdia

- Gazteentzako euskarazko tailerrak: pintura, gaita, eskalada, bertsolaritza, orientazioa, irratigintza, argazkigintza... (1990-1997)
- Larunbat-ero eta opor ludikoak Leitza eta Goizuetan (1993-1995)
- Euskara zerbitzuak antolatutako udalekuak (1995-1996)
- Eguberrietako tailerrak (1996-2011)
- Udalekuak, Nafarroako euskara zerbitzuekin batera (1999-2008)
- Ikastaroak begirale aritzeko (2003)
- Ludoteka Leitza (2007-2010)
- Haur Txokoa eta tailerrak Leitza (2008-2015)

Eragileak

- Euskara zerbitzua (1989-2015)
- Leitza Euskara batzordea (1990-2015)
- Euskara mankomunitatea (1998-2015)
- Marmari taldea (1999-2001)
- Kax-kax euskara taldea (2008-2009)
- Goizuetako kultur taldea (... - 2015)

Ikerketak eta azterlanak

- Euskalkien inguruko beka (1994)
- Euskalkian idazteko irizpideak txostena (2000)

Argitalpenak

- *Euskaria* bideoa (1995)
- Leitza eta Aresoko hizkerak (1998)
- Arano eta Goizuetako hizkerak (1998)
- Leitza mapa toponimikoa (1999)
- Euskalkien inguruko liburuen laburpenak: aldizkariak (2000 eta 2001)
- Goizuetako etxeak (2003)
- Eskualdeko egoera soziolinguistikoa: aldizkaria (2003)
- Aio, Leitza hiztegia (2005)
- Euskara zerbitzuaren egutegiak (2000-2015)

Kultura (1990-2011)

- Udako zinea (1990-2004)
- Bertso eskolak (1992-2015)
- Aresoko euskararen eguna (1995-2009)
- Mozorro Berri antzerki zikloa (1995-2004)
- Toponimiaren inguruko lehiaketa Leitza (1997)
- Euskarazko Produktuen katalogoa (1998-2015)
- UEMAren Kultur Elejira (1999-2011)
- Antzerki emanaldiak (1990-2000)
- Leitza mahai-jokoa (1999)
- Sara-Bermeo-Leitza ekimena (2000-2002)
- Etxepare Saria (2004-2015)
- Ahozko ondarearen bilketa (2007-2008)
- Ikastaroak: soziolinguistika, historia, irratigintza, argazkigintza, aisialdia (1995-2004)
- Hitzaldiak
- Musika kontzertuak
- Ipuin kontalariak
- Bertso saioak
- Bertsolari Txapelketetako kanporaketak

Merkataritza eta lan-mundua

- Itzulpen, zuzenketa eta aholkularitza zerbitzua (1990-2015)

- Material banaketa eskualdeko establezimenduetan (1990-1993)
- Merkataritza kanpaina, euskara zerbitzuak eta UEMAK (1994-2015)
- Bai Euskarari akordioa eta Bai Euskarari Ziurtagiria (2004-2015)

Euskalgintzaren kanpainak

- Egunkaria Sortzen kanpaina (1990)
- Egonaldiak familia euskaldunetan (1990-2000)
- Oinarriaren kanpainak (1991-2004)
- Egunkariaren tonbola (1995)
- Bai Euskarari kanpaina, estadioetako ekitaldia (1998)
- Kontseiluaren kanpainak (1998-2015)
- Hautetsien ekimena (2002)
- Korrika (2001, 2007 eta 2009)
- BERRIA
- UEMA
- Kanpaina jakinak: aseguruak, notarioak... (UEMA, Kontseilua...)

Euskalduntze-alfabetatzea

- Euskalduntze-alfabetatze kanpaina (1990-2015)
- Euskaltegiei dirulaguntza (1990-2015)
- Ikasleentzako bekak (2007-2015)

Sentsibilizazioa-kontzientziakzioa

- Hainbat eragilerekin elkarlanean antolatutako erakusketak: Oinarriak, Kontseilua, Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza / Euskarabidea, EHEren euskararen tunela (2000), Kontseilua...
- Hitzaldiak (1990-2015)
- Osasun arloko kanpainak (1994-2014)
- Abizenak euskalduntzeko kanpainak (1995 eta 2000)
- "Euskaldunak, bigarren mailako nafarrak" kanpaina (1995)
- "Arano-Areso-Leitza-Goizueta, herri euskalduna" orribikoa (1996 eta 1999)
- Argitalpenak, oro har.

Hezkuntza

- Eskolako eta irakaskuntza ertaineko matrikulazio kanpainak (1990-1995)
- Graduatu eskolarra euskaraz Leitza (1992-1995)
- Hitzaldiak eskolan haurrentzat Goizuetan (2000-2005)

- Hitzaldiak eta motibazio saioak eskolan gurasoentzat (1990-1996 eta 2010-2012)
- Motibazio saioak ikasleentzat institutuan (2001 eta 2003)
- Erleta eskolako irakasleentzat trebakuntza (2011-2012)
- Eskolako euskara plana Leitza (2010-2012)

Familia

- Familia programa: "transmisio kanpainak" garai batean, eta familiei bidalitako materialak... gaur egun (1990-2015)

Zerbitzuak eta laguntzak

- Itzulpenak, zuzenketak eta aholkularitza establezimendu eta enpresentzat (1990-2015)
- Itzulpenak, zuzenketak eta aholkularitza elkarte eta taldeentzat (1990-2015)
- Establezimenduetako errotuluetarako dirulaguntza (1994-2008)
- Etxeko errotuluetarako dirulaguntza (2002-2008)
- UEUn matrikulatzeko laguntzak (2002-2006)

Udalak

- Udal barruko errotulazioa (1990-1994)
- Euskara probak lanpostu deialdietan (1990-2005)
- Trebakuntza ikastaroak langileentzat (1990-2009)
- Itzulpenak, zuzenketak eta aholkularitza udaletan eta mankomunitateetan (1990-2015)
- Ordenantzak (1993)
- Leitza eta Goizueta UEMAn sartzea (1993)
- UEMAn eguna Leitza (1994)
- Erabilera kanpainak: euskara udaletan (1994)
- Erabilera planak (2007-2013)
- UEMAn eguna Goizuetan (2012)

Segimendua

- Kale neurketak (1991-2009)
- Herrietako errotulazioaren neurketak (2009 eta 2011)
- Herriko karteleriaren neurketa (2009-2013)
- Leitza liburutegiko maileguen azterketa (2009)

- Hizkuntza politikaz Kontseiluarentzat egindako neurketak (2010 eta 2012)
- Pestetako egitarauaren publizitatearen neurketa (2009-2015)
- Udaletxeetako iragarki taulak (2009-2015)

Eskaerak, kexak, salaketak

- Administrazioari, enpresa eta bestelako erakundeei, helegiteak, eskaerak... (1990-2015)

Euskalgintzari laguntzak

- Euskaltegiak (1990-2015)
- Bertsozale elkarte (1990-2015)
- Kontseilua (2001-2015)
- Nafarroa Oinez...
- Oinarriak
- Ttipi-ttipari laguntza (udalek)
- ...

NAFARROA OSOAN 27 EUSKARA ZERBITZU DAUDE

Nafarroari erreparatzen badiogu lurralde osoan 27 euskara zerbitzu daudela aipatu dugu, udal guztiek ez dutelako euskara zerbitzua. Gehientsuenak 1989-90ean sortu ziren, baina nabarmenezkoa da guztien aurrekari izan zena: Iruñeko udaleko euskara zerbitzua, 1984koa baita. Duela 31 urte hasi zen bertan euskara teknikari bat lanean.

Eta Iruñeak urratutako bideari ekin zioten segidan gainerako euskara zerbitzuek. Urte oparoak izan ziren lehendabizikoak:

1989an sortutakoak dira honako herrietako euskara zerbitzuak eta euskara mankomunitateak:

- Agoitz-Aezkoa, Antsoain, Atarrabia, Bortzirriak, Malerreka, Larraunaldea, Ultzamaldea, Sakana, Lizarra eta Uharte.
- **1990ean:** Leitza, Auritz-Erronbar-Luzaidekoa, Barañaingoa eta Burlatakoa
- **1991n:** Baztan, Esteribar, Orkoien-Oltza Zendea-Etxauri eta Zizur Nagusia
- **1992an** Gares
- **1995ean** Aranguren
- **1996an** Berriozar
- **1997an** Zaraitzu eta Erronkari
- **2004an** Tafalla
- **2007an** Berriobeiti
- **2011n** Galar Zendea
- **2014an** Eguesibarkoa

ONOMATOPEIAK

Euskalkiak aldatzen ari direla eta garai bateko hitzak edo esamoldeak ez ditugula gaur egun erabiltzen esan ohi da, maiz. Hizkuntzalarien eta adituen esanetan egia da, baina horrek ez du zertan txarra izan beharrik, hizkuntza bizirik dagoen seinale da hitz berriak sortzea.

Honako atal honetan Leitzako hiztegitik ateratako hainbat onomatopeia jaso ditugu, euskarak soinuei ere hitzak nola jartzen dizkion erakusteko. Gure hizkuntza, horretan ere, uste baino aberatsagoa baita. Asko ezagunak izanen dituzue eta beste batzuk berriak, horiek ikasteko aukera izanen duzue, beraz, hemen.

bir bir. Hauts erortzearen onomatopeia. Honela dio Gorritineko Miel Luis Zestauk: «Gabez idik eta gurdie artute yoanda kargatu do, ta kajak xuloa izakio, ta biden galtzen polbora bir bir bir...» (PP 96: 326). Bestalde, P. Perurenak esana dakit Goizuetan birbirreko onomatopeiaz esaten zaiola “calambre” delakoari.

brau. Jatekoari emandako mokadua adierazteko onomatopeia. Begira zer dioen Errezumako Joakin Zabaletak: «Ttikitten Joxek eta bik [Beatriz arreba] erabiltzen giñun dominatu nai, da bein, sapelarra zegoan salan, da askotan ibiltzen giñen yostetan beiek giñela uztarrin de ola, ta oneri esan giñion: “i beia aiz” ta salara eraman sapelarra zegoan lekure, ta “yantzan emendik!” eta onek seittun brau! aoa bete beten sapelarra artu!» (PP 96: 508).

danba. Kolpe bizkorra edo tiro hotsa adierazteko onomatopeia. Urtoko Pako Gartziak esana, 1936ko gerran hildako lehenengo reketeaz: «Makurtzeko esaten emen zioan, baño, arrek ez obeditzen;

ta azkenen danba! Bota gizona» (PP). Olaberriko Klaudio Erbitiri jasoak dira bi hauek: «Olaxe aitzen zien lengo ola zarren, da urekin indarra dena. Urek erabiltzen zittun erruedak, eta bielan bidez gabik, danba!, danba! danba! aitzen zien» (PP). «Gero, zozoa artzera yoan da, erbie eokio an lo ta, danba! ta ure re ilde etxera ekarri zula» (PP 96: 447). Errezumako Joakin Zabaletarenak dira hurrengo beste biok: «Zubiturren kantera dagoan ortan lizar illada bat izaten zen, da zoko illune zen ori tioso, ta ortik pasaeran lizar oitako baten gañetik saltatu emen zetzion sorgin bet manddarekin fiit fuut iñez, ta artu aizkoa kertena ta, danba! danba! eman emen tzion» (Ibidem: 503). «Ala, Joanita onek errekan lixue iñ emen zun de, saski aundi beten yaso bizkarrera, ta ganbako balkobera eraman, ta nonbatt nekatute yoan zen, da danba! bapaten bota do saskie, ta losa autsi tte goittik bera saskie ta arropa guzik, beko balkobera» (Ibidem: 503).

danga. Burdinolan gabiak metala jotzen duelako onomatopeia. Honela dio Olaberriko Klaudio Erbitik: «Gabie urekin ibiltzen zen maza aundi bet zen: danga! danga! danga! Artan jenealen gure atte zena aitzen zen» (PP).

dinbi danba, dinbi ta danba. Kolpe soinua adierazten duen onomatopeia. Honatx zer dioen Mikoneko Joanjoxe Kanflankak: «Goizeko ordu bik alden izan bear zien, da auzokoak gure etxera dinbi danba ate yoka: etxea sutan dagoala!» (PP 96: 400). Musungo Fraxku Sagastibeltzari jasoak: «Marikruz ori sekuleko bulletan atarire ateatzen asi denen, aten zolotik agakin esperoan eokio, ta dinbi! ta danba! anak berotu. Etzun txintxe aundik atea andik aurea!» (Ibidem: 464).

dir dir. Argi zirtaren dizdira adierazten duen onomatopeia. «Ittaiek zorrotzu dir dir itten zuela eta gizon eta emakume denak antxe garie ebakitzera altzuen altzuen añen» (Astaitz). Eratsungo Patxiku Deskargak esana: «Ta, gerriko uala, zabal zabala, erosi nun, urre kolore antzekoa, dirdir itten zula» (PP 96: 117). Pastaingo Patxi Barriolari jasoak: «Kontu eta palda eldu omen die ta, Arramiko Lepoan azaldu dienen, Arretxeneko gañeko mendi ori bera otsoa dir dir dir!» (Ibidem: 377).

fit eta fut, fit fut. 1. Eztabaida bizia adierazteko onomatopeia; zentzu horrekin erabiltzen omen da Barrenea Etxean, David Anautek berritu didanez: «Senar-emaztek, bulle baten, fit eta fut ai zien, elkarri asmalak esaten». 2. Oihal igurtzia adierazten duen onomatopeia. Begira zer dioen Errezumako Joakin Zabaletak: «Zubiturren kantera dagoan ortan lizar illada bat izaten zen, da zoko illune zen ori tioso, ta ortik pasaeran lizar oitako baten gañetik saltatu emen zetzion sorgin bet manddarekin fiit fuut iñez» (PP 96: 503).

karrask, karraska. Pitzatzen edo zartatzen den egurraren soinua adierazteko onomatopeia. Honatx Auzmendiko Fermin Lazkanok esana, Putzenbordako gertakariak: «Putzenbordako orik, anai arrebak bizi zien, Maatiste ta Luis. An bizi ziela, zerbatte karraska soñue sumatu etxeokandrek, ta atteri esan emen zion: “Altxa zattea gizona, sekuleko karraska soñuk badie goi ortan!”. Altxa die bik obetik, eta andik belaxe astazaldie erorritte oben erdi erdin geldittue omen zegoan. Andrek muazi, gañekoan antxe akatuko emen zien bik!» (PP). Sorogoikoan diotenez, honela erori zen Gaztañ aundie: «Atsaldea allatu zen da, arraskan lanen ai nitzela, leiotik beidetu

nun da, “baño ze eurik ai ditto!” esanion amunari, ta ura esan nion bezelaxe, karrask! eta aiba Gaztañ aundie erori de» (PP).

kazka, кан, канка. 1. Besteak beste hezur haustea, hozka egitea edo gorputz-adarren bat moztea adierazten duen onomatopeia. Honela dio Astaitzagako Batista Zabaletak: «Atte ta bik yoan emen ittuen Goizutako zapateron baten-gana, zapatak itteko nebrik artzea; ordun bortzaiek itten zetien azpin iltzekin da, alakoak in bear zittuela bi anaiek eta, bizikletan yoan dittok eta, andik eldu ziela attek deskuidoan yo atzetik eta, lurrera erorite kaxka!, burun kolpen bat artute artatik ill uen» (PP 96: 461). Joandegiko Miel Zabaletak esana: «Mutille, yoanda io omen da, ta, eskue leio markoan patu dunen, kazka! aizkoakin moztu neskak. Señale erra utzi zion ark, alajañe, gero zein zen ezautzekore!! » (PP). Tuteneko Miel Zabaletari jaso: «Ama manddarek zabaltzen da ortxe ibiltzen zen noiz nai balkoben, ta gure bai, umek, yostetan, baño sekulen etziuen deus iñ izandu erlek; baño arrotza sumatu ordureko, kazka seittun!» (PP). 2. Bihotzekoaren unea adierazteko onomatopeia. Honela dio Goikobordako Felipa Ayerdik: «Eun baten eman zion atake batek, eta medikue ekarrite buelta artu zun baño bigarren aldin, kax! Ilda geldittu zen» (PP 96: 444). Tolareko Ferminek esana, Indianabordako Martinen heriotzaz (1950): «Asko sopritu gabe, atake txarren batek emanda, kaxka ille izaan zen» (PP).

kiski ti kaska. Behin eta berriz egindako kolpearen onomatopeia. Begira zer dioen Musungo Fraxku Sagastibeltzak, Mendibil inguruan putreak akabatu zuen artzainaren heriotzaz: «Nonbatte an biñipin, ardie yaten aikio putrek eta, sartu emen Minttorlako ori tte, kiski ti kaska berai ekin putrek, ta dena urratu emen zuela gizona, gure zarrak ala esaten zuen» (PP).

kol kol. Algara lasaia adierazteko onomatopeia, kar kar-en kidekoa hain zuzen. Honela dio Benito Astibia “Luxea”k: «Ta yendek: [ume] ttikie zela ta, bularrik etzula artzen da... Gure gurasoak berriz, kontu orik aittute kol kol kol parrez eotten zien sokalden: “yakiñen ezbagiñu bezela, ori norena den!!”» (PP).

plast. Objektu trinko bat lurrera erori dela adierazteko onomatopeia. Honela dio Musungo Fraxku Sagastibeltzak: «Eun artan zen ba: Martoxe Abadebordakoak “Viva Russie!” oiude, plast! txokolate katillue lurrea, ta zutik geldittu lurren!» (PP 96: 467).

punp. 1. Kolpe betearen onomatopeia; ahari talka adierazten dizu sarritan. Honela dio Donmartinbordako Fraxku Olanok: «Aari gaxtoa zen bestea: kolpe gutxi ematten zittun da, beti saieska; gurek aldin aldin punp! ematten zion da muimentue eraitten zion» (PP 96: 427). 2. Erorikoa adierazteko onomatopeia. Haur hizkeran, hain zuzen, “erori”ren ordaina izaten da: «Kontuz, punpa iñezu!». Musungo Fraxku Sagastibeltzari jasoak dira hurrengo biak: «Astaitzako iturrirre allatu dienen, asi de saskie Marikrutzei ematten da, disimuloan punpa lurrea bere burue Martioxek: -Orratx! Miñ artu al dok? /-Ez ez, ezta deuse!» (PP 96: 464). «Musunburuko ontan artu betea, ta urrena Eskolabeneko etxen kontratan atxoon, da andik etxen punpa. Bost beientzako bi euneko pazka eramatten emen zun, biaje bakoitzeko» (Ibidem: 464).

rau. Mugimendu azkarra adierazten duen onomatopeia. Honela dio Bordaberriko Joxemanuel Arribillagak: «(...) kamiona ikusi duenen, denak rau! Barrenera sartu die ta, kamionen etorri Leitza» (PP 96: 36). Pastaingo Miel Barriolak esana: «Yoanda rau! Bota zien lurrea atxaure ori tte, aballa aurea ta, beste bik esi kontratan gordek an eokio bertan da, parra saltatu!» (Ibidem: 386). Errezumako Beatriz Zabaletaren lekukotasuna: «Ama goatute, eztoz sekulen alako nerbioakin ekusi: artu epurpen zeuken saskie ta rau! Bota zun» (Ibidem: 506).

tapatain. Abere lauakoaren onomatopeia. Honela dio Pastaingo Patxi Barriolak: «(...) su artu zaldikoak!! Eta, tapatain! tapatain! tapatain! da, yo goiko paita ta bera!! tapatain! tapatain! tapatain! da, yo beiko paita ta gora!!» (PP 96: 379).

tilin tintin. Zintzarri soinuaren onomatopeia. Honela dio Pastaingo Patxi Barriolak: «Geroxegoan, goitik bera ziztela, Musungo Bordako gaiñ ortan, ardik tilin tintin tintin zintzarri eraiñ omen zion, ta beste soldadu betek: Ai gaixua gaixua! bihar garai ontan eztiyo eragingo!» (PP 96: 377).





Euskal Herria Mendi Erronka

Boluntarioen bultzadari esker lortzen den gailurra

Hirugarren edizioa egin du Euskal Herria Mendi Erronkak, 2013. urtean sortu zenetik, hiru alditan ospatu da Leitzan, Leitzan hasi eta bukatu. Lehen bi edizioak ESAITek antolatu zituen, Euskal Selektzioaren Aldeko Iritzi Taldeak, azken honek ordea, 2015ekoak, Leitza eta inguruko herritako zazpi lagunaren ekimenez egin du aurrera. Leitzatik Iraitz Uriarte, Junkal Otxotorena, Amaiur Alkain eta Eneko Aizagirre bildu ziren. Errazkindik Iñigo Oreja, Lekunberritik Juan Mari Irastorza eta Betelutik Lontxin Zubillaga. Badute zortzigarren laguntzaile bat, eskualdetik kanpo, Gallartatik datorren Iñaki Pazos.

Marmarik horietako lau bildu ditu Mendi Erronkaz hitz egiteko, Iraitz, Junkal, Iñigo eta Amaiur.

Antolatzaileek azpimarratu nahi izan duten lehen gauza, lasterketarik ez lego-keela bertan esku hartzen duten ehunka boluntariorik gabe, beraz, zortzi antolatzaile eta Leitza, Larraun eta Araitz bailarako ehunka boluntarioen babesarekin egiten du aurrera Euskal Herriko Mendi Erronkak, “boluntarioen laguntza ezinbestekoa da ekimen honek aurrera egin dezan, esan daiteke lasterkariak bezain garrantzitsuak direla, lasterketak bere bidea egin dezan, ardura hartzen duten lagun horiek”.

BOLUNTARIOEN LANAREN GARRANTZIA

400 bat herritarren laguntza jasotzen du lasterketak: korrikalariei plazan ongi etorria ematen dietenak, bezperan mendi-bide guztia markatzen eta zehazten dutenak, lasterketa hasi baino ordu batzuk lehenago plazan hasiera prestatzen dutenak, anoa postuetan daudenak, txipa kentzeaz arduratzen direnak, lasterketaren azken korrikalariaren atzetik plastikoak, markak eta zikinkeria guztiak biltzen doazenak, lotura lanak egiten dituztenak... eta horrela 400 lagun. Ia korrikalariak bezainbeste, aurten 598 lagun irten baitira Euskal Herria Mendi

Erronkan. Antolatzaileek ez ezik, mendi-lasterkariak ere goraitatu izan dute boluntarioen lana.

Boluntario gehienak leitzarrak dira, baina Araitz bailaran 90 bat lagun elkar-tu dira aurten, lasterketak bere bidea egin dezan laguntzeko eta Lekunberrin, 50 inguru.

Junkal antolatzaileetako bat da eta bera ere boluntario gisara hasi bazen, ardura handiagoak hartu ditu azken bi urteetan: “Lasterketa honek kohesioa, lotura sortzen du herritarren artean eta bailaran. Mendi lasterketak elkartzen ditu elkar ezagutzen ez dutenak, bailara desberdinetako jendea eta kohesio hori oso polita da. Elkarlana da herri batek eduki dezakeen gauzarik politena”.

Iraitz ere antolakuntza lanetan ibili da: “Leitzan betidanik boluntario lana izan da eta hori indartzen saiatu gara: zaharrak, gazteak, sekula aritu gabekoak, eskolakoak, ... jende gehiago sartuz boluntarioen sarea zabaltzen saiatu gara, herrian gehiago inbolukratzeko, batetik, eta esperientzia hau bizi dezaten, bestetik. Izan ere hemen bizitzen duguna handia da. Lasterketa antolatzeak ekartzen duen lana ikaragarria bada ere, bidean sortzen den harremana eta auzolana zoragarria da eta horrek betetzen gaitu. Hori nabarmendu nahi genuke, gauza ederra baita ahal den jende gehiena elkartu eta ondo pasatzea”.

Boluntario guztiak ez dira ordea leitzarrak, Amaiur Leitzan bizi den Donostiarra da eta “Leitzan horrelako antolakuntza batean sartzea, nerretzat herrira gerturatzea izan da. Dena den antolakuntza lanek bezainbeste betetzen nau lasterketa ikusteak, ni aldiro betetzen nau helmugan sartzen den lasterkariaren irriparrak, eurek bezala bizitzen dudalako eta espero dut noizbait beraiek bizi dutena bizitzea”.

Junkal lehen urtean boluntario gisara hasi zen. Orduko hartan lasterketa amaitu eta aste batzuetara ibilbide guztia egin zuten hainbat boluntariok, ibilbidea 4

etapatan zatituta. 4 larunbata jarraian egin zituzten, bakoitzean lasterketaren zati bat osatuz. “Azkeneko etaparen osteko bazkarian, laguntza behar zutela aipatu zuten eta animatu egin nintzen, pentsatu nuen polita izan zitekeela: lasterka ibiltzea gustatzen zait, mendia ere bai eta baita herriaren alde lan egitea ere... ba aurrera”. Eta horrelaxe erabaki zuten antolatzaile taldean sartzea.

Iñigo ere antolakuntza lanetan dabil: “Mendiarekiko sekulako zaletasuna dut eta norberaren bailara eta zaletasuna sustatu eta ezagutzera emateko aukera ona da Euskal Herria Mendi Erronka egitasmoa”. Sustatu eta ezagutzera emateaz gain, badirudi herritarrek kutsatzeko ere gaitasuna baduela lasterketak. “Lehen bi lagun ibiltzen ginen mendian, postaria eta ni eta Mendi Erronka gure bailarara iritsi zenez geroztik, jende asko ikusten duzu mendian lasterka eta niri horrek poza ematen dit, bailarako gazte bat eta bestea korrika ikustea. Pentsa Whatsapp-eko perfiletan ere jendea mendietako argazkiak jartzen hasi da eta hori lehen ez zen gertatzen. Mendian espero ez duzun jendea ikusten duzu, orain arte ez genekien afizioa ere bazutenik eta eurekin hitz egin eta entzuten diezu esanez lasterketa batera joan behar dutela, hurrena mendi ibilaldira... ederra da hainbeste jenderen artean zaletasuna zabaldu dela ikustea”.

Hala ere, lasterketak bailarako jendeari asko eman dion arren, Iraitzek aitortu digu kendu ere, asko kentzen duela Mendi Erronkak: “denbora batez ere, azkeneko astean familiak ez gaitu ia ikusten, antolakuntza lanetan burubelari ibiltzen gara eta eskerrak etxe-koek pazientzia duten”. Txanponak bi alde izaten ditu, ordea, eta kasu honetan ere antolakuntzan aritzeak, arestian aipatu bezala, badu bere alde ona, “ondo egindako lanaren satisfakzioa, eta herritarren artean elkar hartze giroa, bai Leitzan zein Betelu, Araitz bailaran edota Lekunberrin”.

Herritarren laguntzari Udalaren babesa ere gehitu zaio, Leitzako Udalak emandako laguntza eta izan duen inplikazioa oso garrantzitsua delako, antolatzaileen esanetan.

ESAITEKIN ABIATUTAKO EGITASMOA

Lasterketa duela hiru urte hasi zenean, euskal selekzioaren aldeko sustapena egiteko eta bide batez bailarari sustapena emateko baliatu zen. ESAITek, Nafarroan egin nahi zuten mendi erronka eta Leitza aukeratu zuten. Iraitzen ustez “Leitzak baditu horrelako lasterketa bat antolatzeko nahikoa arrazoi: bailara ikusgarria da, inguru politetatik igarotzen da, lasterbide ederra da, gehiena mendia baita, ez du apenas asfaltorik zapaltzen, ez da kasik zementutik pasatzen. Eta erkidegoan egin beharrean, ESAITek Nafarroan sartu nahi zuten proiektu horretan eta Leitza aukeratu zuten”.

2013an guztia prestatzen ari ziren hartan, ezin zuten pentsatu mendi lasterketa honek izan zezakeen arrakasta eta oihartzuna, baina hala gertatu da, jende uholdea iristen da herrira, eta bezperatik somatzen da giro berezia: lasterkariakin batera familia eta lagunak ere etortzen baitira asteburua pasatzera. Urtez urte eutsi zaio jende andana horri. Junkalen ustez “ahoz-ahokoak ere asko lagundu du lasterketak arrakasta izan dezan”.

MENDI ERRONKA DATUETAN

Aurtengo edizioan, lasterkariak 67 kilometroko bidea egin behar izan dute, eta horietatik 3600 metro aldapan gora. Guztira, 7600 metroko gainbehera egin dute lasterkariak. Ibilbide zaila, hainbat gailur gaindituz osatu behar izaten dute parte hartzaileek. Zailtasunak ez dira egun horretakoak bakarrik. Mendian zehar egiten den bide hori bezain malkartsua da antolaketa lana. “Zailena hastea da, ez baitakizu nondik hasi. Ez da soilik kirola, gauza asko daude, babesleak,



aseguruak, baimenak, prentsa... hasieran uste genuen nahikoa zela lasterketaren ibilbidea markatzearekin, baina berehala konturatu ginen logistika handia eskatzen duela hau antolatzeak eta horretarako jende asko behar dela, ezin zara lokartu, urte guztian ari zara pentsatzen hau egingo bagenu edo bestea..."

Lasterketaren egunean, antolatzaileak eta boluntarioak goizeko 05:00etan hasten dira lanean eta azken lasterkariak helmuga gurutzatu ondoren, guztia jasotzerako gaueko 23:00ak izaten dira gutxienez. "Lan guztia korrikalariei eskainia da, ez dugu dirua lortzeko inongo asmorik" gaineratu nahi izan dute antolatzaileek.

ALDAKETA GUTXI

Azken hiru urte hauetan oso gauza gutxi aldatu dira ibilbideari dagokionez, lasterkariei bidea errazteko aldaketa txikiak egin diren arren. Hasierako zatian, herrian zehar, bide luzeagoa proposatu dute aurten, mendian gora abiatzerakoan enbudorik egin ez dadin. Aldaketa baita

ere Lekunberritik Ireberrera arteko bidean, lehen pistatik joaten ziren lasterkariak eta orain basoan sartu dute ibilbidea.

Lehen edizioan, 500 lagunek eman zuten izena lasterketan, bigarren goan 720k eta iaz 663, lehen aipatu bezala 598 irten ziren Leitzako plazatik. "Lasterketa askotan gertatzen da, izena emandakoak baino jende gutxiago agertzea irteera puntura".

Eta lasterketako denborei dagokienez, ez dago zehazterik zein izan den, lasterkarien artean ibilbideko denborarik onena, urtero ibilbideak hainbat aldaketa izan baititu, eta ez da konparagarria, beraz. Kilometro bertikalaren denbora bai ordea, urtero ibilbide denbora egin delako Gaintzatik Hirumugarrietara, Aralarko mendirik altuenera. Aurten ezarri du errekorra Iker Karrera amezketarrak, denbora onena eginez, kilometro bertikal hori 43 minutu eta 25 segunduan burutu zuen.

Aurtengo edizioari dagokionez, Daniel Agirrek irabazi zuen 6 ordu eta

42 minutuan osatuz 67 kilometroko ibilbidea eta Elena Calvillok 8 ordu eta 23 minutuan egin zuen.

4. EDIZIOARI BEGIRA

Jada erabakita dago noiz izanen den hurrengo Euskal Herria Mendi Erronka, ekainaren 4an ospatuko da eta laugarren edizioa izanen da. Oraindik sei hilabete dituzten arren, ez dago geratzerik, esperientziak erakutsi dien bezala kudeaketa lan handia izaten delako, eta ekainarako guztia prest izateko urte osoan ari behar dute honetan lanean. Lasterketa bukatzearekin bat egiten dute lehenbiziko balorazio bilera, "boluntarioekin elkartu eta zer joan den ongi eta zer hobetu daitekeen aipatzen ditugu, hurrengoetarako kontuan hartzeko".

Hala ere, izanen dituzte buruhausteak, ustekabeak eta estuasunak, baina ez dute zalantzarik egiten, berriz ere antolatzaile eta ehunka boluntarioen laguntzari esker, 2016ko Euskal Herria Mendi Erronka prestatzea lortuko dutela eta iritsiko direla berriz ere gailurrera.

LEITZA Migel Angel Gereñoren begietan

Afizio handia du argazkilaritzara Migel Angel Gereñok, eta milaka argazki dauzka han eta hemen eginak. Leitzan egindako argazki batzuk utzi dizkigu MARMARI aldizkarian argitaratzeko, bere begiek Leitza nola ikusten duten nolabait erakusteko: familia, lagunak, txokoak, natura, kultura, festa... horiek denak dira Leitza Migel Angelentzat, eta horren erakusgarri ederra eskaintzen digute irudi dotore hauek. Ea gustuko dituzuen!









HITZOKEI

Marmari aldizkariaren nahietako bat hizkuntzarekin jostatzea izan da, eta irakurleek ere euskararekin gozatzea, baita barrerako uneetan ere. Dibertitzeko ahalegin horretan argitaratu izan du Marmarik, lehen ere, HITZOKEI tarte hau. Euskararekin dibertitzen direnek sortutako ekimena da eta hitzekin jostatzeko, hitzak sortzeko eta ongi pasatzeko helburua du.

Hainbat lagunek sortutako hitz berri hauek <http://hitzokei.tximinia.net> helbidean aurkituko dituzue, eta zuk ere, irakurle, asmatu eta bertara bidal ditzaitez, nahi izatera.

Hauxe duzue, bada, aurtengo alerako aukeratutako hitz berrien zerrenda. Ongi pasa!

Apuztu: jokoan harrotu.

Arazoak 1: guztia gaizki irteten den eguna.

Astoratu: kezkatu, larritu hainbeste jendek kirol-marka jakin bateko arropa jantzen duelako.

Atabiko frogia: Euskalduntasuna frogatzeko, ohitura preindoeuropear basatiak dituzula demostratzeko egin beharrekoa.

A town: Small village of Goierri.

Bababrun: Babarrunak jan ondoren botatako puzkerrak.

Bachoki: Johan Sebastian maisuaren omenezko taberna puskak.

Bakardi: besteekin harremanak hasten laguntzen duen edaria, bakarrizketara eramango zaituena gehiegi edanda.

Batuta: orkestrako musikariak elkartasunean aritzea lortzen duen makiltxo.

Berroziraptor: Erdi dinosauro, erdi ertzain den Aresen agindupeko agente berezia.

Biologoa: bi pertsonen arteko monologoa.

Bizigotiko: Iluntasuna bizitzeko modua. Espainiako VI. mendeko tribu urbanoa, beltzez jantzen ziren.

Boston: AEBtako hiria, esku bateko hatzarekin kontatu daiteke bertako jende zintzoa.

Erkatu: andaluziar bat "gato" euskaraz esan nahian.

Errez-petatu: begiruneaz berbetan ahoa hitz politez aise betetzea.

Errezpublika: XXI. mendean traba handirik gabe argitaratzen diren iruzkin anti-monarkikoak.

Esku bi du: paradoxikoki, eskurik ez duen marrazki bizidunetako txakur beldurtia.

Espainiako itsulia: Euskal Herriko muga ikusi ezin, eta pare bat egunean Espainiatik kanpo igaroko den txirringularitza proba.

Euskara satorra: zerbitzu sekretuetako agenteek hitz egiten duten euskara.

G-arraioa: Gipuzkoako herri batetik bestera mugitzeko dauden aukerak ikustean botatzen duzun madarikazioa.

Gaintzurizketa: ilezurien harteko solasaldia.

Gayxo: eliza katolikoaren iritziz, sendatu daitekeen gizaseme heterosexuala.

Golentzero: gabonetako ikazkin futbolzalea.

Gorputza: zaratarik gabeko puzkerra.

Hip-uin: bat-batean sortzen den kontakizun laburra, diafragmaren uzkurdurak eragindakoa.

Ikea-garriya: Altzari merkeak erosteko gogo eutsiezina.

Hantzatu: abesten ari zaren bitartean gorputza doinuaren erritmoan mugitzea. Eta alderantziz.

Hokazale: gobernuan beraien ingurukoei lanpostu onak ematen dizkieten politikoak.

Komunikazioa: toilet grafiti.

Lehenin: banguardia, herriaren aurretik doana. Komunistetan number one. The first.

Malerusky: zorte txarreko artista errusiarra.

Nafharroa: nafar izateaz harro dagoena edo Nafar harroa nondik begiratzen zaion.

Neskafe: moja gazte.

Dilasko: marea beltza.

Olentzero patatero: Arabako gabonetako pertsonaia.

Olentzierro: zezenen aurrean opariak banatzen dituen ikazkina.

Omendu: ustez zeozer duenari omenlardia egitea.

Ordeñagailu: behiak jezteko tresna.

Ordubietan jarrai: ordu txikietan politikaz solasten segitzeko gogo.

Otalore: fotosintesia trafikiko ordenantzen arabera egiten duen landarea.

Proletargo: langileria esnatzeko ezintasuna.

Reiki taichi: zabaldu eta zerratu.

Sakar poltsa: zaborra atera.

Salerosi: Grazia handiko italiarra.

Su-eterna: armak behin-betiko uztea.

Tailandia: hego-ekialdeko Asiako XXXL estatua.

Toptila: tortilarik onena

Txistularri: eiakulazio goiztiarra.

Kale edo Bale... BALIKEBALE!

Herriaren ezagutza zabaltzeko asmoz sortutako lehiaketa



KALE EDO BALE | BALIKEBALE!
2. edizioa

LEHIAKETA MUNDIALA
abenduaren 26an, 19:00etan zinean

**LEITZA EZAGUTZEN DUZULA USTE
BADUZU ETA ONGI PASA NAHI
BADUZU, PARTE HARTU
ABENDUAREN 26AN EGINEN
DUGUN TALDEKAKO
LEHIAKETAN: GALDERAK,
ARIKETAK, PROBA BERRIAK....**

PARTE HARTZEKO BALDINTZAK:

Taldekak 3 pertsonak baino gehiago izan behar dira.
Taldekak 18-25 urte bitartekoak behar dira, berriak 25-40
urtekoak eta hirugarrenak 40tik gorakoak.
Izena ematen duten taldeen artean sartzea egiten da, eta
lehiaketarako 4 haurkakoak dira.

SARIAK

1. saria: 450€-ko bertsio
Gazteko sariak sailkapeneren arabera banatuko dira. 100 taldeen
artean hainbat jabeleketan 2 laguntzaraino irazteko. (Alex Mugelaren
jabeleketan, Argibonoren jabeleketan, Okabola komertzio dendan jabeleketan
gortzeko). Marzot bursariak eskaintza 4. irailaren bitartean 3 sariak.

IZEN EMATEA:

Urriaren 19tik abenduaren 19ra arte
buzara zerbitzuan,
logoilabarmark.eus
948.510.314
karpas@balikebale.com
948.610.914
balikebale@balikebale.com
balikebale.com

Aurtengo edizioko kartela.

Hemen da **Kale edo Bale... BALIKEBALE** lehiaketaren bigarren edizioa. Aurten bada-kizue zer gisako lehiaketa izanen den, bigarren aldiek horixe baitute, lehen-bizikoak duen misterioa agerian uzten dutela. Baina badu bere alde ona ere, herritarrek zein lehiakideek ongi pasa zutela badakigula eta berriz ere umorerako tartea bermatua izanen dela.

Lehiaketari izenburua ematen dion hitzari erreparatuz, bai al dakizue zer esan nahi duen **BALIKEBALE** hitzak? *badaezpada* da bere esanahia. Hitz aproposa lehiaketa baterako, erantzuna seguru ez badakizu ere *badaezpada* bota, akaso asmatu eta puntua lortuko duzulako.

BALIKEBALEREN SORRERA

Euskara zerbitzutik abiatutako ekimena izan zen. 2013. urtean hasi zen gauzatzen lehiaketarako asmoa eta 2014ko hasierarako lantalde bat sortua zen lehiaketa prestatzeko eta antolatzeko. Helburu garbia izan du hasieratik Balikebalek: Herriaren, kulturaren eta euskararen inguruko ezagutza eta dibulgazio lan polit bat egitea egitasmo honen bitartez.

LEHIAKETAREN NONDIK NORAKOAK

Lehiaketaren diseinuan sartuta, ikus-kizun dinamikoa izan behar zuela pentsatu zuen lantaldeak, erritmo bizikoa eta arina, umorea bazterrean utzi gabe. Saioko osagaietako bat umoreak izan behar zuen, jendeak ongi pasatzeko eta ahal bada barre eginez.

Horiek gogoan hartuta, hiru lan nagusi izan ditu lantaldeak:

- **Edukia prestatzea:** lehiaketaren bitartez zer ezagutarazi eta dibulgatu nahi den erabaki du lantaldeak, gero ezagutza hori hainbat galdera eta proba bidez jasotzeko.
- **Saioaren diseinua eta antolaketa:** saioa ariketen eta proben bitartez gauzatuko zela erabakita, probak

eta ariketak biltzen, asmatzen eta sortzen joan da taldea, lehiaketaren diseinua programatu eta doitzeko.

- **Partehartzea:** 12 lehiakideen parte hartzea bermatzea.

Eta horrelaxe gorpuztu zen iaz Bali-kebale lehiaketa; herriari, gertakarieri edota pasadizoei buruzko galderak izan ziren batetik, imintzioka ere aritu ziren keinu bidez asmatu beharreko hitza adierazi nahian, eta publikoak ere izan zuen egitekoa lehiakideei probak gainditzen lagunduz, besteak beste. Aurten ere izanen da publikoaren inplikazioa, modu batera edo bestera.

TALDEKAKO LEHIAKETA

Lehiaketa taldeka antolatua da, aurten ere lau talde izanen dira oholtza gainean eta bakoitza hiru kidez osatua. Taldeak mistoak dira, emakumeak eta gizonezkoak talde berean eta gainera adin tarte ezberdinetako herritarrek osatuak.

Aurtengo lehiakideak honako 12 herritarrek izanen dira:

- Heleni Zabaleta
- Miel Olano
- Julen Sagastibeltza
- Fernando Oiartzun
- Birjinia Mariezkurrena
- Oinatz Mariezkurrena
- Mikel Ilarregi
- Aitor Zabaleta
- Oihane Calderon
- Miki Zabaleta
- Iñaki Zabaleta
- Itxaro Zabaleta

Talde bakoitzak kolore jakin bat izanen du, koloredun kamiseta batek bereiziko ditu taldekideak.

Hainbat proba gainditu beharko dituzte finalera iritsi nahi badute. Bidean puntu gehien batu dituzten bi taldeak lehiatuko dira finaleko azken proban.

SARI EDERRAK IRABAZTEKO AUKERA

Lehiaketak herriari eta euskarari buruzko ezagutza zabaltzeko asmoa duenez,



lazko Bali-kebaleko 12 parte-hartzaileak, lehiaketa amaitu ondoren.

ikuskitzuna amaitzerako, bertaratuek Leitzari buruz zertxobait gehiago ikasiko dute, seguru aski, baina horretaz gain partaideek sari ederrak irabazteko modua ere badute. Izan ere Bali-kebale lehiaketak sariz betetako saskia prestatu du 2.ediziorako ere.

Sariak:

- Irabazleentzat 450€ko txekoa.
- Gainerako sariak taldekide guztien artean banatzeko izanen dira:
 - 3 laguntzako otorduak Argiñano jatetxean, Alex Mugika jatetxean, Casa Julian jatetxean eta Olaizola sagardotegian.
 - Asteburu pasak bi landetxetan: bat Kanpezuko Ibernalo landetxean eta bestea Izabako Txapatera landetxean.
 - Herriko 45 denda, jatetxe, taberna edo establezimenduk osatzen duten Kaxkabeltza elkartearen eskutik 150€ko bonoa, elkarteko kide diren tokietan gastatzeko.
 - Kursaal Eszenak antolatutako ikuskizun baterako sarrerak.
 - Leitzako produktuez osatutako

sorta bat: gazta, mermelada eta oroigarri gisara, Okille Tailerrean sortzen duten Eguzkilorea.

Hauek guztiak lehiakideentzat, baina izanen da publikoaren artean banatzeko beste sari bat, Adunako Urritza jatetxean otordua.

LAGUNTZAILE ETA BABESLEEI ESKERRAK

Proiektu guztietan bezalaxe lantalde batek hainbat boluntario izaten ditu ondoan, itzaletik eta isilean lan eginez. Ekimen honetan ere ezinbestekoa izan da hainbat erakunde eta herritarren laguntza. Batetik Leitzako Udalaren babesa eta dirulaguntza, bestetik saria ematen lagundu duten guztien borondate ona. Eta ezin aipatu gabe utzi 18 pertsonako laguntzaile taldea, iaz bezala aurten ere prest agertu direlako eskatutako lanetan esku bat botatzeko. Izendatutako guztien laguntzarik gabe ezin izanen litzateke Bali-kebale gauzatu. Guztiei eskerrak eman nahi dizkie lantaldeak, Marmariko orrialde hauen bidez.

19. KORRIKA, EUSKAHALDUN!

19. KORRIKAK Urepeletik Bilbora osatu zuen ibilbidea aurten, 2015eko Martxoaren 19an abiatu eta 29an amaituz. Bidean 157 herri zeharkatu zituen, 2.500 kmilometro osatzeko 11 egunetan. Tartean Leitzatik ere pasa zen, Martxoaren 21eko goizaldean sartu zen herriko lurretan Uitzitik barrera. Herria erditik zeharkatu eta Sarrion fabrika atzean utziz segitu zuen Korrikak bere bidea Tolosa aldera.

Goizeko 05:00ak jota iritsi zen Korrikaren lekukoa Leitzara, euripean eta artean argitzeke, ilunpean, baina herritar asko bildu zen errepide bazterrean Korrikari ongietorria egiteko. Hemen bildu ditugu orduko argazki batzuk, une hura berriz ere gogora ekartzeko. Gozatu!







Herri-kirolaren sustraiak ongi errotuta dituen herria

Jakina da Leiza oso herri kirolaria dena, kirolari handi askoak eman ditu herriak. 27. aldizkari honetan errepaso bat ematen saiatuko gara, izan ere ibilbide luze eta oparoa izan du herri-kirolak Leitzan, eta etenik izan ez duena da gainera. Gaur egun ere hainbat aizkolari, harrijasotzaile, segalari, txinga-eroaten eta ingudelari badirelako oraindik herrian.

Guzti hauen ondoan, lehengo kirolak ere gogoratu nahi genituzke: lasterkariak, palankariak eta artzai txakur txapelketetan aritutakoak ere izan ditugulako Leitzan. Guzti hauek gogoratzeko Gabriel Saralegirekin bildu da Marmari, aizkora mundua ederki eza gutzen duelako baina baita, oro har, herri-kirola ere.

MARTIN GARTZIARENAK HASITAKO BIDEA

Leitzan herri-kirolak aizkolarien eskutik abiatu zuen ibilbide oparo hau. 1940. hamarkadan hasi zen nabarmentzen aizkora munduan, Martin Gartziarena herritarra. Beste batzuekin batera aizkora apustuak jokatzen hasi zen, eta hortik txapelketetara egin zuen salto.



Martin Gartziarena Tolosako zezen plazan 1949an

Espanian lehendabiziko aldiz egin zen aizkolari txapelketan parte hartu eta irabazi egin zuen Gartziarenak 1950. urte inguruan.

KOMUNIKABIDEETAN IZAN ZUEN OIHARTZUNA

Martin Gartziarena herritarraren ospea azkar zabaldu zen, herritik kanpo ere.

Orduko periodikoetan jasotako 2 adibide ekarri ditugu Marmarira, bi argazki ageri direnekoa bat eta bestea artikulu bat. Azkeneko hau 1950eko abuztuaren 18ko Diario de Navarra egunkariak argitaratutakoa da. Leitzako pestei buruzko kronika idatzi zuen eta bereziki azpimarratzen du Gartziarena aizkolari handiaren saioa.



¡El mejor aizkolari del mundo está en Leiza!



Munduko aizkolari onena



Martin Gartziarena 1950eko aizkolari txapelduna

PAGINA SEGUNDA

PUEBLOS LEIZA

LAS FIESTAS

Todo el que no haya presenciado las fiestas que con motivo de conmemorar la festividad de su patrono San Tiburcio, se celebran en esta simpática villa, debe hacer una visita, en la seguridad de quedar totalmente satisfecho.

El programa de fiestas que en esta ciudad de troso que lo iguala.

Lo banda de música de Puzos muy afanada e incesante. Es una solemne alabada por su digno párroco, de gran resonancia, dándole un simpático edulcora, le guarda de honor al altar por sus vistosas cristalerías con su bandera.

La salida de novatos embaudos, divertidísima, mucha compeitura en el público y sin una voz fuera de tono.

Lo recepción en la Casa Consistorial, amueblada al pueblo, el vecindario a recibir y festejar a la representación de la villa en las personas de su digno alcalde y concejales. Los partidos de pelota, la lucha de cancheros, la carrera pedestre, los juegos artísticos, etcétera, todo organizado impecablemente.


La nota más simpática la dan los representantes del Club Deportivo "Aurrerá" con su patética alusión, con su cómico cantar y bailar, con su música de bandadones y con su rumbo, al obsequiar como final de fiestas a las autoridades, Ayuntamiento y muchos invitados con un espléndido banquete en sus locales. Y como colofón, a pesar de su edad, exhibe torpemente integrado, nada de gomeritismo; ¡loar deñat! Bien mudiachas!

Deje para el final la lucha de Alcegorri. Se enfrentó el campeón Gartzariena contra Otearain U. Leizorren, Ayerri y Gloor a parte 8 troso de 54 puñetas alternando estas últimas a cada troso, reventando como siempre al parpado.

El día de los cascos, es una cosa tan típica, tan regionalista que no cabe ser vista en otra parte. Ese cantar y bailar de sexagenarios con tanta "salska" como al fueran jóvenes, esa lunata alegría y los obsequios a sus parejas es algo inasustable.

Me parecieron a los dominicos, costureros y al pueblo todo y más especialmente a los hermanos Puzos a quienes deseo muchos años de emulación de Deñante.

Un Yuzuarrita,



Patxi Astibia 1968an



Esteban Saralegi Arrokoa, enborrak neurtzen

Patxi Astibia 1971ko Aizkolari Txapelketa irabazi zuen



Martin Gartziazenaren harrimoan etori ziren ondorengo aizkolariak: bere anaia Joxe Mari, Joxe Migel Arraras, Migel Zabaleta, Enrike Bildarratz, Bittorio Alkoz eta Migel Iturrarte. Guztiak hainbat aizkora apustu egindakoak dira.

Aipatzekoa da Joxe Mari Gartziazenak “hasi berrien txapelketa” irabazi zuela, Asturias aldean.

PATXI ASTIBIAREN AROA

Ondoren iritsi ziren Astibiatarrak (Pello, Patxi eta Luxiano), Migel Zestau, Joxe Urkiola eta Joxe Zabaleta.

Multzo honetan bereziki nabarmendu behar dugu Patxi Astibia, jokaturako apustu guztiak irabazi zituelako baita 5 aizkora Txapelketa ere. 1960-70 hamarkadetak ari gara, kontuan izan, garai hartan ez zela urtero jokatzen aizkora txapelketarik. Hainbaten artean azpimarratzekoa da Donostian jokatu zen txapelketa, Migel Zestau eta Patxi Astibia 2 leitzarrek parte hartu zuteneko. Txapelketa arrakastatsua izan zen, Donostiako zezen plaza lepo, jendez gainezka zela.

Joxe Urkiolak ere baditu hainbat lehiaketa jokatuak eta irabaziak, gazte mailako eta bigarren mailako txapelak eskuratu baitzituen. Aizkolari aparta zertoren baina ezbehar batek kirol mundua uztera behartu zuen.

Aizkora munduan emanaldi eta txapelketaz gain, apustu ugari jokatu izan da. Herriko aizkolariek jokatu eta irabazi ere egin zituzten, Joxe Zabaletak, Migel Iturrartek eta Enrike Bildarratzek esaterako.

JOKATZE-LEKUAK UGARIK IZATEN ZIREN

Garai honetan herriak aizkolari asko eman zuen, eta jokatze lekuak ere ugariak izaten ziren, herriko plazatik kanpo ere beste hainbat tokitan antolatzen zituzten aizkora saioak: Herriko auzoetan (Gorritzaranen-Kaxetan-, estazioan, Altzun-fabrikako zelaian-), plaza zaharrea, Amazabal frontoian, Larbando futbol zelaian eta plazatan ausartzen ez zirenak “bajeratan” aritzen ziren elkarren kontra.

Bestelako apustuak ere izaten ziren sasoi hartan, ez akaso, aizkora apustuak bezain entzutesuak edo ugariak baina

Leitzan ahari apustuak eta oilar apustuak ere jokatu ziren.

TELEBISTAZ EMANDAKO TXAPELKETA

Leitzako plazan 3 txapelketa nagusi jokatu ziren garai hartan. 1970. urte ingurua zen, eta txapelketa hauetako bat telebistaz eman zuten, 1971koa hain zuzen ere. Telebista kate bakarra zegoen garaiaz ari gara, irudiak txuri beltzean ematen zirenekoa. Orduko hartan ere Leitzako plaza ikusle askoren bilgune izan zen, eta berriz ere herri-kirolari esker. 4 aizkolarik jokatu zuten txapelketa, 3 napar eta gipuzkoar bat: Patxi Astibia herritarra, Migel Mindegia ezkurrra, Migel Berakoetxea gorritiarra eta Jose Inazio Orbeagozo, *Arria II.* azpeitiarra. Patxi Astibia handia izan zen txapelketa, bigarren Mindegia egin zuen, Berakoetxea hirugarren eta *Arria II.ak* laugarren bukatu zuen.

HERRIKO 133 AIZKOLARI BILDU ZITUEN EMANALDIA

1988an Larbando futbol zelaian herrian jaiotako edo herrian bizi ziren 133 aiz-



Ezkerretik eskuinera: Jose Migel Arraras, Migel Zabaleta, Enrike Bildarraz, Joxe Mari Mendizabal, Patxi Astibia, Anita Aierdi, Martin Gartziarena, Migel Zestau, Pello Astibia, Luziano Astibia, Gabriel Saralegi, Iñaki Perurena, Jose Mari Gartziarena, Bittorio Alkoz eta Migel Iturrarte

kolari bildu eta saio bikaina eskaini zuten. Geroztik sekula errepikatu ez den emanaldia izan da.

Kopurua harrigarria izan zen benetan, horrelako gertakaririk ez delako edozein herritan izaten. Baina hainbeste aizkolari biltzea bezain azpimarratze-koa da guztien artean emakume bat ere izan zela, bat eta bakarra gainera: Anita Aierdi, leitzarra.

Arroko Estebanen auzokoa izaki Anita, eta behin Esteban joan eta aipatu egin zion ea aizkoran animatuko litzatekeen. Anitak baietz esan eta horrela sartuarazi zuen Esteban Saralegik lehenbiziko emakumea aizkora mundura. Arro base-rrian ikasi zuen Anitak egurra ebakitzen. Estebanen eta Gabrielen aholkuei esker ikasi zuen aizkoran. Arron ikasitakoa gero plazan erakutsi zuen hainbat erakustalditan, eta baita arestian aipatutako Larbandoko jaialdian ere.

Emakume ausarta izan zen Anita eta harek urratutako bideari ekin zioten beste 2 emakumek ere: Arroko Maribi eta Kristina Saralegik. Euskal Herrian ez zen neska aizkolari askorik ikusten



Kristina Saralegi eta Itziar Goenaga

eta ziren apurretatik 2 leitzarrek ziren gainera. Elkarrekin ibili ziren 2 ahizpak hainbat emanaldi eskainiz, Maribik utzi eta Kristinak segitu zuen gero. Ondoren Azpeitiko Itziar Goenaga izan zuen aurkari bolada batean. Azkenean bi hauek ere utzi egin zuten afizio hau.

70EKO HAMARKADAK KIROLARI UGARI EMAN ZITUEN

Ondoren iritsi ziren Saralegitarrak (Gabriel, Nartxi -aizkolari ez ezik harrijasotzaile ere izan zen eta 1992an Nafarroako Txapelduna izan zen harrria jasotzen-, Esteban, Migeltxo eta



Ezkerrean Joxe Ramon Billabona, Gabriel Saralegi eta eskuinean Iñaki Perurena



Gabriel Saralegi zutikako enborrean, ikusleak begira dituela



Mieltxo Saralegi gerrikoa jartzten eta harri kubikoa altxatzen



Iñaki Perurena 261 kilokoa altxatzen

beranduago baina etxe beretik, Maribi eta Kristina), Iñaki Perurena, Joxe Ramon Billabona eta Miel Luis Urkiola.

Oso garai oparoa izan zen 1970etik aurrerakoa. Herriko aizkolari ugari aritu ziren Leitzako zein kanpoko plazetan.

Garai honetan nabarmentzekoa dugu Joxe Mari Mendizabal ere, nahiz leitzarra ez izan, 1977. urte aldera etorri zen Leitzara bizitzera. Garaitu horretan hasi zen aizkoran eta oso entzutetsua izan zen bere ibilbidea, apustu asko jokatuz eta 4 txapel irabaziz: 1981, 1984 eta 1987an Nafarroako Txapelduna izan zen eta 1985ean Euskal Herrikoa.

Aizkora ez zen Euskal Herriko kirola bakarrik, atzerrian ere aritzen ziren eta horren adibide dugu 1970eko amaieran Donostian antolatu zen Munduko Aizkolari Txapelketa. Bertan parte hartzeraz etorriak ziren, besteak beste, australiarrak. Australiar hauek azkar

jakin zuten Leitzarren berri, eta Arroko Estebanengana etorri ziren laguntza eske. Arro baserrian aritu ziren entrenatzen Donostiako Txapelketa hartarako.

Patxi Astibia herriko semea ere australiarrekin batera aritu zen aipatutako txapelketa hartan, Mindegia eta Arriarekin hirukotea osatuz.

Hurrengo urteko txapelketa berriz ere Donostian jokatu zen, berriz ere Australiarren presentziarekin. Atzeritarrek Euskal Herrian zirela aprobetxatuz, Leitzan omenaldia antolatu zitzaizen Martin Gartziarena eta Patxi Astibia aizkolari handiei. Omenaldi egun honetako saioan 3 herrialdetako aizkolariak aritu ziren, aizkoran egiteko modu ezberdinak agerian utziz: herriko aizkolariak, australiarrak eta kanadiarrak. Izugarritzko oihartzuna izan zuen emanaldi hark eta 3.000 lagun bildu ziren Leitzako plazan, herriak zituen biztanleak adina ikusle etorri

zen saioa ikustera. Ez da horrelakorik sekula errepikatu Leitzan.

70EAN ABIATUTAKO LEITZAKO KOADRILAREN BIDAIK

Herri-kirolak aproposak izan dira festetako egitarauak nahiz bestelakoak osatzeko eta janzteko. Beti izan dute beren lekua Leitzan zein beste herrietan. Madrilen San Isidro egunean egindako plazako saioan ere izan ziren herritarrak. Gabriel Saralegi alturako egurra ebakitzen 9 metrotik, Iñaki Perurena harria jasotzen eta Agustin eta Markinako Lehoia harri-tiraka (giza proba). Ikuskizun ederra osatu zuten eta jendea harrিতa geratu zen.

1987an Zangozan egin zen Nafarroa Oinezen ere aizkora saioa eskaini zuten leitzarrek eta Nartxi Saralegi 15 metroko altueratik aritu zen enborra moztzen.

Bartzelonan ere izan ziren 1992an, Olinpiada Kulturaletik deitu zieten: Nartxi harrijasotzera (Nafarroako txapeldu-



Herri-kirolariak Leitzako plazan



Jon Kanflanka segalaria

na zen) Mieltxo orga jokoan aritzera (gurdiari tiraka) eta Daniel Vicente igundearekin.

Atzerrira egin zuten salto emanaldi hauen ondoren: Ameriketara (Boise, Elko eta Argentinara), Japonian, Frantziara, Belgikan, Alemanian eta Italian barrena ibiliak dira besteak beste.

LEITZAKO ESKOLA EMANKORRA

Aizkorak badu etorkizunik oraindik herrian, Leitzako aizkora eskolatik ateratako aizkolariak badiraute gaur egun ere:

- Jon Rekondo (Urrezko Kopa irabazi zuen iaz)
- Arkaitz Olano (hirugarren mailakoa irabazitakoa) eta Julen Olano
- Ruben Saralegi (hirugarren eta bigarren mailan Euskal Herriko txapeldua) eta Eneko Saralegi (hirugarren mailan Nafarroako txapeldua)
- Iker Bizente (Nafarroako Txapelketa irabazi du 2015ean baita Euskal Herriko bigarren mailakoa ere).

HERRI-KIROLAK AURPEGI ASKO IZAN DITU LEITZAN

Aizkorak eman dizkio kirolari gehien herriari, kopuruz zein emaitzei begirako pozez. Baina kirolari gutxiago izan diren arren, harrijasotzeak leitzarrei eman dien poza ikaragarria izan da.

Entzutetsuenak eta munduan ezagunenak Perurenatarrak eta Saralegi izan



Miel Peritzekoa harria jasotzen 1966an



Ezkerretik: Joxe Jabier Ariztimuño, Joxe Mari Alduntzin, Agustin Zabaleta Kaxkanta eta Pello Morras

dira. Hauek izan zuten ordea, aitzindariarik aurretik, harrijasotzen ibilitakoak dira honako hauek ere: Miel Peritzekoa eta Juan Joxe Astibikoa.

Ondotik iritsi ziren esan bezala, Iñaki Perurena (aizkoran hasi zen lehendabizi eta harria jasotzen gero), Mieltxo Saralegi (aizkoran eta harria jasotzen), Inaxio Perurena eta Josetxo Urrutia.

Segalariak ere izan dira, orain baino lehen: Joxe Zabaleta, Joxe Jabier Ariztimuño eta gaur egun Jon Kanflanka.

Txingak ere ekarri nahi ditugu kirol ezberdinen zerrenda honetara Leitzako baduelako Txapeldua txinga-eroaten, Migel Angel Sukuntza herritarra.

Lasterkari bikainak eman ditu herriak, batzuk txapelketak jokatuak: Pello Morras, Joxe Jabier eta Bautista Ariztimuño eta Joxe Mari Alduntzin.

Beste batzuk laster-apustuan arituta-koak: Migel Sukuntza, Rafael Mugika Kaxetakoa, Domingo Urrutia Kantinkoa, Periko Razkin, Agustin Zabaleta *Kaxkanta*. Tomas eta Antonio Alduntzin anaia lasterka erakustaldietan arituta-koak dira.

Herri-kirolarien zerrenda luzea dela ohartuko zineten honez gero, eta gaurko alean lekuri handiena aizkorak hartu badu ere, saiatuko gara guztiengana iristen eta hurrengo urteetako Marmari aldizkarietan egiten diegu tokia gainetarako herri-kirolei ere.

zer diozu?

eta zuk,

Maite Perurena



- **Bidaiatzea gustuko al duzu? Egin duzun bidaietatik gehien gustatu zaizun tokia?** Bai, nere bizitzan leku eta ohitura ezberdinak ezagutzeak nere ganbara irekitzen, kuriositatea asetzen eta gauza asko entenditzen lagundu dit. Ezagutu ditudan leku guzietan bere xarma: Erromako harrik, Istanbulko jende emanak, Amazonetako piztik, Pirineotako bistak edo Arramiako lasaitasunak.
- **Zer da bidaiaren horretan bereziki gustatu zitezakuna?** Bidai guzitan helburu bera dut, disfrutatzea. Nere egunerokotik ateratzea, jakinkio berriro hortara itzuli behar duala. Espektadora modun eotzea.
- **Zein da iritsi ez zaren, baina gustura joanen zinatekeen lekua?** Leku gehienak ditut ezagutu gabe Afrika, Txina, Artikoa... halere ez dut espa berezirik.
- **Kanpora zoazenean eramaten al duzu libururik?** Bidaietara noanean liburua beharrean kuadernoa eramaten dut, bizipenetan zentratzea gustatzen zait eta ondoren irakurri oroitzea. **Azkena zein hartu zenuen?** Irakurle taldean naenez Ana Jakaren *"Ez da diruagatik"* leittu berri dut, mesanotxean nere anaiaren *"Hilen xarma"* eta Jaime Izquierdoren *"la casa de mi padre"* dauzkat.
- **Eta musika? Ze garrantzi du musikak zure bizitzan?** Kotxean kantatzekoa, parrandan erritmoa duen musika dantzatzekoa, etxeko lanetan klasikoa edo jazz... Lasai eta bakarrik nagoenean berriz ixiltasunaren musika asko estimatzen dut.
- **Zein da zure gustuko musika-taldea edo bakarlaria?** Irakurtzea bezala, buladaka, gustokoa badut edozein.
- **Zure bizitzako momentu edo garai jakin batekin lotzen duzun kantua?** Eguberri eta otordu familiarak attan bertso doñukin lotzen ditut, gaztaroa Bob Marley, Euskal Roka... eta une hontan Diana Krallen "all four you".
- **Egindako ametsak gogoratzen al dituzu?** Lotakoak? Bai batzutan... besteak... ez ahazten saiatzen naiz.
- **Gure herrira etorri, zerk bereizten du Leitza inguruko herrietatik?** Oso zirkunstantzi garrantzitsuak, ni bertan bizi naizela eta gustora gainera...
- **Zein da Leitza zure gustuko txokoa?** Umetan Amazabal, Iruñaga, Portolonborda, Zentraleko presa ingurua, gaztetan Santa Krutz, gero Leitza-larrea ta orain Arramia eta gure Sagastineko etxe ingurua.
- **Nolako Leitza nahiko zenuke hemendik 15-20 urte barru?** Hori bai ametsa... bizi banaiz. Indarberritua eta bere buruaren jabe. Baserri guzietatik, kaleak bizirik eta Leitza leitzar arduratsu, osasuntsu, konsziente eta solidarioen eskutan dagoela sentituz.

Markel Barriola



- **Bidaiatzea gustuko al duzu? Egin duzun bidaietatik gehien gustatu zaizun tokia?** Bai, asko. Gehien gustatu zaidan lekua dantza taldearekin Bernara egin genueneko, Txekiara.
- **Zer da bidaiaren horretan bereziki gustatu zitezakuna?** Herria bera, hemengoarekiko horren diferentea da. Genemakien lagun giroak ere asko lagundu zuen.
- **Zein da iritsi ez zaren, baina gustura joanen zinatekeen lekua?** Dudik gabe Zeelanda Berria. Espektakularra izan beharra du, paisajeak-eta. Mundu bat aparte ematen du.
- **Kanpora zoazenean eramaten al duzu libururik? Azkena zein hartu zenuen?** Ez dut ohitura handirik. Azkena *"El retorno de los dragones"* liburua izan zen.
- **Eta musika? Ze garrantzi du musikak zure bizitzan?** Musika orain arte hobby bezala hartu dut, baina azkenaldian KATEZ taldearekin nabil, San Ferminetan jo genuen eta orain CD-a ateratzen ari gara. Oso ilusio-natuta gaude. Nire arreba Nahia eta Mikelekin abesteko aukera ere izan dut, esperientzia erabat ezberdina bizituz; eta oso positiboki harritu nau. Orain, beraz, esan dezaket musika nire bizitzaren oso zati garrantzitsua dela, arazo guztiak ahazten ditut, atmosfera ezberdina sortuaz. Espero dut, egunen batean honetatik bizi ahal izatea.
- **Zein da zure gustuko musika-taldea edo bakarlaria?** Denetik, batez ere, euskal musika gustatzen zait: Gati-bu, Katez, Berri Txarrak, Arcada Social... kanpoko musika ere bai, Rise Against batez ere.
- **Zure bizitzako momentu edo garai jakin batekin lotzen duzun kantua?** Jende askok esan izan dit, pixka bat pailazoa naizela, eta adarra jotzea ere asko gustatzen zait, beraz, nire burua gehien identifikatzen dudana abestia Gatiburen "Pailazo" da.
- **Egindako ametsak gogoratzen al dituzu?** Bai, zoritxarrez bai, armiamekin gau txar asko pasa ditut, nahiz eta ez eduki fobiarik.
- **Gure herrira etorri, zerk bereizten du Leitza inguruko herrietatik?** Dauzkagun paisaje ezberdin guztiak, eguna pasatzeko ditugun aukerak (natura aldetik) eta beste lekuetatik bertan dagoela: Donosti, Iruña, Tolosa...
- **Zein da Leitza zure gustuko txokoa?** Nik uste herritar guztiak erantzungo luketena esanen dotela, Leitza-larrea. Erabat aislatuta sentitzen zara. Zenbat aldiz joan ote naiz, lurren etzan ta kriston denboak egon hortxe kieto!
- **Nolako Leitza nahiko zenuke hemendik 15-20 urte barru?** Galdera honetan pixka bat kritikoa izango naiz. Nire ustez, herriak kalitate asko dauzka orain dena baino erakargarriagoa izateko; herriko jendea ez da gehiegi animatzen atsalde-gau parteko giro hori sortzeko. Askoz ere giro herrikoia egon beharko luke eta horretarako gazteak hasi behar dugu pauso hori ematen. Beraz 15-20 urtetara baino lehenago giro hori itzultzea nahiko nuke, herritarrak elkartuagoak egoteko.